

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Kontuan hartuta **diseinua eta fabrikazioa** beste norbanako zein enpresetara bideratuko ditugula guk geuk ezinbesteko izango ditugun baliabideak ez dira hainbeste izango. Makinaren prototipoa egingo duen pertsonak prototipoa gurekin egin beharko balu **3D makina** eta horretarako **materiala** ezinbestekoa da. Idea gurea izanik, ordea, prototipoa guk egin behar badugu 3D makina erabiltzeko **formazioa** ere beharko genuke.

Enpresak **lokal** bat beharko luke bezeroekin kontaktatzeko eta erreferentzia gune gisa baliatzeko. Lokal horretan **elektrizitatea** eta **ura** ezinbesteko lirateke. Lanerako, berriz, **interneteko konexioa, ordenagailua eta telefonoa** beharko genituzke lokalean. Hasierarako bakoitzak bere telefono eta ordenagailua baliatzea dirua aurrezteko modu bat litzateke, baina ez legoke gaizki bulegoan egongo denak han izatea denek erabili ahal izateko ordenagailua eta telefono zenbaki pertsonalak erabili baino enpresarena izango den linea bat ere beharrezko jo dugu. Lokal horrek **biltegi** gisa ere funtzionatuko luke, makinak bertan gorde eta hedapena handik egiteko, nahiz eta instalazioa iturginen esku egon. Iturginaren zerbitzuarekin batera bere materiala ere funtsezko baliabidea da.

Bulegoa bera ez litzateke zertan handia izan beharrik, hortaz, **coworking gune** bat baliatzea izan liteke aukera bat, esaterako, eibarcoworking.com. Hor biltegia litzateke arazo, beraz, hasieran agian taldeko norbaiten **garajea edo lokalen** bat izanez gero hura baliatuko genuke makinak pilatzeko eta gerora lokal propio batean bulegoa eta biltegia batzea litzateke asmoa.